

BERRIGARA

5. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, maiatzak 24




Pazkuak 96
Bergarako jaixak




LETE

arraindegia

Azoka Plaza ☎ 76 02 44





**ZELULITISAREN
AURKAKO
METODO
INTEGRALA**

GIARTZU

Boni Laskurain, 3

☎ 76 35 71



GERMAINE DE CAPUCCINI
EDERTASUNA DAGOKION TOKIAN

◆ FARMAZIAK

Ostirala: Estella / Amezua.
Larunbata: Mozos / Ruiz.
Igandea: Mozos / Morales.
Astelehena : Camacho / Azkoaga.
Astearte: Puy / Español.
Asteazkena: Guallar / Corcuera.
Osteguna: Estella / Irizar.

◆ OGIA

Igandea: Mizpildi.
Astearte: Ogizun.

◆ KINTO BAZKARIA

1936an jaiotakoen anaiarteko eguna ekainaren 1ean. Eguerdian meza Santa Marinar eta ondoren bazkaria Antxonin. Izen-ematea (2.000 pzta.) Euxebio II eta Antxoni tabernetan.

◆ BEDELKARREN ZOZKETA

Bedelkarrek, Bergarako artisten elkartearekin batera, herriko dendetako eskaparateetan antolatutako erakusketaren zozketan 5.867 zenbakia izan da saritua. Yoar zapata dendan eman da txartela. Ordezko zenbakia, Poligonoko Primi arraindegian emandako 2.627 zenbakia da.

◆ SAN ESTEBAN

Pazku domekan urteko meza ospatuko dute Elkorobarrutiako auzokideek San Esteban ermitan eguerdiko 12:00etan.

◆ SIMON ARRIETA

Simon Arrieta zeramika tailerrekoek Kultur Etxean prestatu duten erakusketa igandera arte izango da zabalik. Bustinez egindako eskultura eta figurak daude ikusgai. Bestalde, Zenezaleak taldeak Jose Mari Rekondori egindako omenaldian oparitu zion oroigarria Maria Jesus Manzisidorrek, Simon Arrietako kideak egindakoa zen.

◆ ZINEA

Scorseseren "Casino" pelikula emango da jaietan. Robert De Niro eta Sharon Stonerekin.



BERRIGARA BEREZIA. Jaiei buruzko informazio konpleto eta zehatzena **44** orritan.



IGANDEKO TXEKORKETAKO protagonistekin izan gara. "Paulita" eta Millan zezenaren zai. **20.** orria.



DEABRUAK TEILATUETANi eta jaietan izango diren beste hainbat rock talderi elkarrizketa. **31.** orria.



ARANZADI IKASTOLAKO dantzarien erakustaldia iragarri da martitzenerako. **37.** orria.



ORKESTA SINFONIKOAK 10 URTE betetzen ditu. Ospatzeko ostiralean kontzertua emango du. **8.** orria.



PILOTA JAIALDIAK izango dira jaietan lau egunetan. Rai pilotaria elkarrizketatu dugu. **28.** orria.



JAIK LANEAN eman beharko dituztenen gora-beherak ere jaso ditugu. **32** orria.



HERRI BAZKAIXA antolatu du Jardunek astearterako Bideberrin. Ondoren karaokea. **39.** orria.

• Antzinako hormako erlojuen konponketa eta zaharberritzea •

• Opari-gaiak • Kirol trofeoak •

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94

ETXEBERRIA

bitxitegia

erlojutegia

• Swarovski kristalezko irudiak •

• Erloju eta bitxitegi tailer propioak • Bitxien transformazioa •

PRESOAK EUSKAL HERRIAN



JOSE RAMON
AIASTUI
ARETXAGA



IÑAKI
ARENAZA
GARITANO



IÑAKI
ARIETALEANIZ
TELLERIA



MIKEL
ASKASIBAR
GARITANO



LUIS MARI
AZKARGORTA
BELATEGI



PEDRO
BELASTEGI
ZUBIA



JOSE MARI
ETXANIZ
ZORRILLA




LUIS
ETXEBERRIA
PABON



MARIA EUGENIA
GRACIA
CAMPILLO



IÑAKI
IBABE
GURIDI




XABIER
LAZKANO
PEREZ



XABIER
OREGI
ETXEBERRIA




MIKEL
OSA
ALDEKOA




DEPORTATUA

PANAMA



DEPORTATUA

VENEZUELA



ERREFUXIATUA



NAHI DITUGU!!!



BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 BERGARA
☎ 76 03 97 • FAXA: 76 08 19

ARGITARATZAILEA: JARDUN
ZUZENDARIA: ENEKO AZKARATE
ERREDAKZIOA: EDUARDO MENDIBIL,
MIKEL ELKOROBEREZIBAR ETA JONE
LARRAÑAGA.
MAKETAZIOA: ENEKO AZKARATE
PUBLIZITATEA: ALEX AZKARATE
HARPIDETZAK: GORKA ELORTZA
TESTUEN ZUZENKETAK: ESTEPAN
PLAZAOLA, MARIPI LASKURAIN ETA ALEX
LABAIEN.
ERREDAKZIO KONTSEILUA:
GORKA ELORTZA, MIGUEL ANGEL
ELKOROBEREZIBAR ETA ALEX LABAIEN
KOLABORATZAILEAK: AMAIA ALBERDI,
AITZIBER AZKONDO, ELENA FERNANDEZ,
IÑAKI GABILONDO, MARIA GOMEZ ETA
MARIA URZELAI.
PORTADAKO ARGAZKIA:
JUANMA ARGAZKIDENDA
BANAKETA: TXANTXANGORRI TALDEA
TIRADA: 4.000 ALE.
INPRIMATEGIA:
GERTU KOOP. ELK. (ZUBILLAGA. ONATI)
COPYRIGHT: BERRIGARA
LEGE GORDAILUA: SS 50/91
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK EZ DU BERE GAIN
HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO
ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUNKIZUNIK.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru
Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jauriaritzaren
Kultura sailaren laguntza jaso du

ALKATEAREN AGURRA

Iritsi gara 1996ko Pentekoste Jai
Nagusietara. Diru gutxi izan arren, ez dira
ilusioa eta gauzak ongi egin nahia falta izan
eta ez dut zalantzarik aurreko urteetakoak
bezain jai kutunak izango ditugula.

Eta hutsune hori betetzeko, egitarauan
agertuko ez dena gainditzeko, barneko grina
eta irudimena kaleratzeko gai izan behar dugu,
jai egunetan eguneroko arazoak zokoratu eta
umore onari eta jostaketa osasuntsuari lekua
eginez.

Nire eskerrik beroena jai batzordeko kideei eta
ekintza ezberdinak antolatzen lagundu duten
herritar guztiei, eskaini diguten laguntzagatik.
Goza dezagun, beraz, bergararrok eta egun
horietan guregana hurbilduko direnek, antolatu
diren ekintzetan parte hartuz eta, era berean,
nire oroitzapenik zintzoena gure artean egon
ezingo duten bergararentzat.

Zuen Alkatea:
Victoriano GALLASTEGI

Murillo Garajea

AUTOMOBILEN KONPONKETA



IVECO

San Lorentzo-Leizeaga
Poligono industrialia, 4
☎ 76 13 84

ONDO PASAU JAIXAK!!

FURGONETAK
KAMIOIAK
Zerbitzu ofiziala



agurra

BERRIGARA
Pazkuetak
ale berezia

1996-5-24

5

EGITARAUA

20:00:

Bitorianatxoren jeitsiera eta etxafleruen jaurtiketa jaiei hasiera emateko, San Martin plazan.



20:15:

Udal Musika Bandaren kalejira, hiriguneko kaleak alaituz.

20:30:

Eskola kiroleko txapelketaren sari banaketa Plazan.

20:30:

Barraken irekiera.

20:30:

Txoznen irekiera Bideberrin. Ipintza Institutuko ikasleek, Jarraik eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak jarritako txoznak izango dira aurtan.



23:00:

Bergarako Orkestra Sinfonikoaren X. urteurreneko jaialdia, Udal Pilotalekuan. Aurkezlea: Alberto Gorritiberea. Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque. 200 lagun izango dira taula gainean: Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoko musikoak, Aritzetako, Bergarako Orfeoiko eta Orfeoi Gazteko abeslariak, bakarlari arituko diren 4 kantari eta rock talde bat. Kontzertuak bi zati izango ditu. Lehen zatian, Orkestak 10 urte hauetan eskaini dituen piezen errepasoa egingo da. Bigarrenean, berriz, El Rey Leon pelikularen soinu bandaren selekzio bat eskainiko da.



23:00:

Rock kontzertua Bideberrin: The Pleasure Fuckers, Cujo eta Txokolate Revenge. Azken hau Balen Kalboetxeaga (kitarra eta ahotsa), Bittor Uralde (bajua), Martin Etxeberria (kitarra), Jose Larrañaga (bateria) eta Amaia Arriaran (ahotsa) bergarrek osatzen dute.

23:00:

Dantzaldia San Martin plazan Joselu Anaiak taldearekin.

IRITZIA



BIDEBERRI JAI TOKI

Badirudi, txoznak jaien inguruko esparru alternatibo direla eta bide batez beste aukera batzuk ez dituztenentzat diru-iturria. Baina gure herrian txoznen ibilera historikoak irudi hau desfiguratu du. Bergarako tradizioa, kolektibo ezberdinek bakoitzak bere lokala montatzen. Baina beste gauza askotan bezala, lege, normatiba eta agintarien burugogorkeriak herriaren iniziatiba moztu eta bere bidetik eraman nahi izan du eta hemen gaude Bideberriko txoznetan. Oraindik ez da berandu eta txoznak jartzen dituzten taldeen lanarekin eta txoznetako jai errezentio alternatiboetan sinisten dugun herritarren laguntzarekin lan polita egin daiteke Pazkuetan Bideberri jai eremu alternatiboa izan dadin. Gaur egun txoznetako gunea rock jaialdiak daudenengan bakarrik da erreferentzia. Honelako guneak hain gogoko dituzten gazteek ere gero eta gehiago nabaritzen dute txoznen iniziatiba eza eta ambiente falta. Inertziak hiltzerik nahi ez badugu buelta eman beharko diogu honi. Jai gune alternatiboa ezin da konformatu Udaletxeak antolatutako bizpahiru jaialdirekin; programa propioa izan behar du, apala eta herrikoia. Lan hau burutzeak hilabeteetako esfortzua eskatzen du. Aurtengo Pazkuak daudenetan pasatu eta ea hurrengorako denboraz lan polita egiten dugun.

JOSE RAMON KORTABARRIA "MOZTU"

ONDO IBILI JAIXETAN!!

Mekolalde Taberna

Mekolalde auzoa z/g

☎ 76 50 18

■ ATREBENTZIA EZPADA

Jaietan kanpora joango zara ala bertan geratzea nahiago?



JOSE ANGEL JAUREGI

Astebukaera aprobetxatuko dut eta astelehen eta asteartean, beharbada, kanpora joango naiz, ez dakit. Bost egun gehiegi dira...



VALENTINA GARCIA

Jaiak herrian egoteko dira, niri izugarri gustatzen zaizkit. Entzierroak ikustera joaten naiz eta Espoloiko dantzaldiak ere primeran daude.



MOISES GALLEGO

Bergaran geratzen naiz. Zergatik? Jaiak direlako, ohitura hori ez da galdu behar. Alaba Barakaldon bizi da eta hura ere jaietan etortzen da beti.



ISABEL MARTINEZ

Nahiago dut hemen geratzea, gainera jaiak urtean behin dira. Jaietan ondo pasatzen dut eta alabari ere barrakak asko gustatzen zaizkio.

■ MINGAINARI TIRAKA

David Calvo 19 urte ditu, eta aurten 4. aldiz dago Bergaran. Andoaindarra da. Jaietan etortzen da, baina ez jai egitera lanera baizik; haruntz-honuntz autotxoketan ibiltzen da.


Bergara bezalako herririk ez dago... eta ez eman jaboirik.

Ez dago, ez. Batzuk hobeak, beste batzuk txarragoak dira. Zarautzek, esaterako, Bergarak adinako 3 balio du.

Zeintzuk dira bergararrak baino jatorragoak?

Otxarkoagakoak. Jaietan giro hobe eta bronka gehiago egoten da.

Parrandarako herri bat?



DAVID CALVO BARRAKEROA

Santutxu. 3 urtean izan naiz, eta gauero gaupasa egin dut. Bergaran bat ere ez.

Diruari asko begiratzen diogu?

Egunez zuhur samarrak zarete,

txartelak ere banaka erosteko ohitura duzue; gauze ez hainbeste.

Zein barrakatan ez zinateke sekula ibiliko?

Denetan ibiltzen gara; doan, jakina!

Barraketan ikusi duzun egoerarik arriskutsuena?

Egoten dira, baina nik ez dut sekula ikusi.

Eta barregarriena?

Barraka montatzea eta desmontatzea.

Esaten duten bezain ligoiak zarete?

Marinelak bezalakoak gara, herri bakoitzean neska bat dugu.



MARISKO HAZTEGIA

ITXAS
EDER

Primitiva Morenoren oinordekoak

Arrain freskoa eta izoztua
Mota guztietako mariskoak

Mintegi kalea. Tfnoak: Arrandegia: 76 47 41
Etxea: 76 21 08 • Mobila: 908 77 04 88



ostirala

BERRIGARA
Pazkuetako
ale berezia

1996-5-24

ORKESTA SINFONIKOAREN X. URTEURRENA

The Lion King frontoian

Orkestra Sinfonikoak 10. urteurrena ospatzeko The Lion King filmeko soinu banda eskainiko du. Hans Zimmer-ek konposatutako musika eta Elton John-ek abestutako baladak oinarri hartuta A. Gz. Chirlaquek The Lion King filmeko soinu banda moldatu eta egokitu egin du.

Bere zuzendaritzapean jardun-go dute 200 lagunek: batetik, Orkestra, Aritzeta Orfeoia eta Orfeoi gaztea arituko dira; bestetik, bakarlariei lagun egiteko 12 lagunek abesbatza izango da eta rock taldea ere arituko da.

Bakarlariei dagokienez, soinu bandan Elton John-ek abesten dituen bi kantuak Josean Rodriguez-ek abestuko ditu; Gotzon Bikuña, Rafa Moñux eta Amaia Arriaran, berri, animaliak izango dira. Rock taldeko partaideak Julen Narbaiza, Koldo Lizarralde, Aitor Aranburu, Enrike Txurruka eta Iñigo Alberdi dira.

35 minutu iraungo du The Lion Kingen moldaketak. Aurretik, 40 minututan, Orkestra Sinfonikoak 10 urte hauetan jotako piezen bilduma eskainiko du.

Alfredok duela urtebete ekin zion partituras ateratzeari; beste-

ak orain dela hiru hilabete hasi ziren entsaietan. Azken egunetako lehoiaren orroak gaur musikaren goxoaz isilduko dira.

Asteazkenean sarrerarik erosi ez duzuenok kontzertu aurretik Frontoian eskura ditzakezue.

10 URTE BIDEAN

Bergarako Orkestra Sinfonikoa 1985ean eratu zen, Musika Eskolaren barnean. Gaur egun Orkestra 16-24 urteko 67 musikariz osatuta dago eta zuzendaria hasieratik Alfredo Gonzalez Chirlaque da. Lehen urteetako kontzertuak herri mailakoak izan ziren; gaur egun, ostera, Euskal Herrian zein kanpoan egiten dituzte emanaldiak -duela gutxi Huelvan zehar ibili dira.

ERREPERTORIO ZABALA

Errepertorioan autore klasikoak nagusi izan arren (Mozart, Bach, Grieg...), gaurko konposagile (F. Mercury...), soinu banda (Carpenters, Schindler list, La mision...) eta egile euskaldunen partituras (Guridi, Arriaga...) ere ez dira falta. Aipamen honetan ezin dira ahaztu A. Glez. Chirlaquek konposatutako Urdiruz, eta Orkestak Schombergen Miserableak musikalarekin lortu zuen arrakasta.

Elgetako Udalaren enkarguz Elgetako himnoa aurkeztua du Bergarako Orfeoiarekin eta Oskarbi abesbatzarekin batera.



ORKESTA SINFONIKOA HERRIKO MUSIKARI GAZTEEK OSATZEN DUTE.

PAPERGAIK

LIBURUAK

ALDIZKARIK

OPARIK

Jai zoriontsuak izan ditzazuela!!

PEÑALBA

Irala, 17 ☎ 76 10 49

LOTERIA

KINIELA

BONOLOTOA

LOTERIA PRIMITIBOA



Sinba, lehoi txikia
Amaia
Arriaran
Bakarlarria

"Ez dakit solfeorik, dena belarriz egin dut"

Zer kantatu behar duzu?

Kantu bat; Sinba lehoia txikitan izango naiz.

Denbora asko eman duzu kantua ikasten?

Ez dakit solfeorik eta dena belarriz egin dut: kantua zatika entzun letra hartzeko eta ingelesez ondo ahoskatzeko, nik gainerik abestu...

Bi astean edo ikasi dut etxean. Gero rock taldekoekin egin ditut entsaioak.

Aurretik bakarlari izan zara?

Oso estilo desberdinetako

kantuetan; hiruzpalau aldiz kantatu dut jendaurrean.

Begarako Txokolate Revenge rock taldean, eta Arrasateko Sonora Cerrajera salsa eta bolero taldeko kantaria naiz.

Erantzunkizun handia da The Lion Kingeko bakarlarrietako

bat izatea?

Denetik sentitzen dut. Frontoian hainbeste jenderen aurrean kantatu behar dudala pentsatzeak urduri jartzen nau; neure buruari esaten diot gauza naizela eta egingo dudala. Eta, horrelako muntaian parte hartzea oso polita da, uste dut

dena ondo irtengo dela. Niri kantatzea asko gustatzen zait, eta aukera bat badut, zein musika tankera den kontutan hartzeke kantatu egiten dut.

Neketsua izan da dena prestatzea?

Lana Alfredoren izan da gehien bat, lan handia egin du: partitura guztiak atera... Jende gaztearentzat motibatzeke eta aurrera jarraitzeko oso garrantzitsuak dira horrelako muntaiak.

Begarako Txokolate

Revenge rock taldeko

eta Arrasateko Sonora

Cerrajera salsa

taldeko kantaria naiz

1. Zatia. ORKESTA SINFONIKOA.

- CARMEN. Operako suitea. G. Bizet.
- URDIROZ. Preludioa. Alfredo G. Chirlaque.
- DE PELICULA. Filmeen soinu-bandak. Alfredo Gonzalez Chirlaquek egokitua.
 - EXODUS. Exodus filmekoa.
 - CLOSE TO YOU. Carpenters filmekoa.
 - MARIA. West side story filmekoa.
 - THINK OF ME. The phantom of the opera.
 - GABRIEL'S OBOE. The mission filmekoa.
 - LAINO ARTEKO GAZTELUA. Miserableak.
 - I COULD HAVE DANCED ALL NIGHT. My fair lady filmekoa.
 - SCHINDLER'S LIST. Schindler's list filmekoa.
 - FINALE. E.T. filmekoa.
- EL CASERIO. Preludioa. J. Guridi

2. Zatia. ORKESTA ETA KOROAK

- THE LION KING. Filmearen soinu-banda. H. Zimmer-E. John. A. Gz. Chirlaquek egokitua.
 - THIS LAND.
 - ...TO DIE FOR.
 - CIRCLE OF LIFE.
 - I JUST CAN'T WAIT TO BE KING.
 - UNDER THE STAR.
 - HAKUNA MATATA.
 - CAN YOU FEEL THE LOVE TONIGHT.
 - KING OF PRIDE ROCK.

Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque



Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

BERRIGARA Pazkuetako ale berezia

1996-5-24

okindegia BOLINTXO gozotegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 • Zurradero, 2 ☎ 76 01 26 • BERGARA



ARRASATE ☎ 79 63 42

EIBAR ☎ 10 40 66

EIBAR (Amaña) ☎ 10 42 24



i2 VIDACRUCETA S.L.
Santalaitz, 4
ITVren ondoan
Tfnoa: 76 51 73



■ GETXOTIK DATOR ROCK & ROLLA • CUJO

Alfonso (gitarra eta ahotsa), Iñigo (baxua eta koraak) eta Nacho (baxua eta koraak) getxotarrek osatzen dute Cujo taldea. Jendearen arteko erlazioak, edonori gerta dakiokkeen kantatzen du. Gitarra zalapartatsua, melodia markatuak eta kantariaren ahotsak bereizten ditu.

IÑAKI GABILONDO

- Noiz eta nola eratu zenuten taldea?

- Alfonso: Ni los nadie taldearekin hasi nintzen; gero Cancer Moonen Iñigorekin batera ibili nintzen, eta biok zerbait eratzea pentsatu eta jotzen hasi ginen. Lehenengo kontzertua Vancouvers taldearekin jo genuen.

Iñigo: Los clavos taldearekin jo nuen lehenago, baina gero Alfonso eta bioi musika beretsua gustatzen zitzaigula eta, elkartu egin ginen.

- Nondik atera zenuten taldearen izena?

- A: Stephen Kingen liburu bateko txakur baten izena da. Zazpi hilabetez Ingalaterran egon nintzen eta bertan nuen liburu bakarrazen.

- I: Nahiz eta nik beste izen bat izan, ezin izan genion ezetzirik esan. Gainera, artikulua bareko izen bat nahi genuen, eta Cujok baldintza hori betetzen zuen.

- Ze musika egiten duzue?



"HIRUROK ROCK & ROLLA ATSEGIN DUGU".

- A: Ez dakit, rock melodikoa edo antzeko zerbait. Hirurok Rock & Roll-a atsegin dugu, eta ateratzen zaiguna horrelako zerbait dela uste dut.

- I: Agian Power Pop-a edo, Britainiar punkya edo... Baditugu abesti melankolikoak ere, ateratzen zaiguna egiten dugu. Replacements, David Bowie, Meat Puppets, Hüsker Dü, Screaming Trees, Stooges taldeen eraginak izan ditzakegu.

- Zerbait kaleratu duzue?

- A: Lau abestiz osatutako Breakfast izeneko singlea dugu kalean. Iaz, bestalde, CD single bat atera genuen.

- Jendea nola ari da erantzuten?

ten?

- A: Ongi, agian CDarekin hobeto, baina gu nahiko pozik gaude.

- I: Bai, CDak formato erakarriagoa dauka, irradian ere lehenago jartzen dute, kritikak egiteko ere hobeto... salmentei buruz ez daukagu ideiarik ere.

- Ze proiektu duzue?

- I: Udazkenerako LP bat eta Bideo Klip pare bat ateratzeko asmoa dugu. Bitartean, jotzen jarraituko dugu.

- A: Bai, jotzen jarraituko dugu, Algortan, Bilbon, agian Asturias eta Galizian... Gehien atsegin duguna da.

- Ezagutzen al duzue Bergara?

- A: Cancer Moonekin jo nuen eta oso gustora gelditu ginen jendearen jarrerakin.

- I: Inguruetan jo izan dut (Azpeitia, Soraluze...) eta inpresio ona jaso nuen, oso giro beroa dago.

"Rock melodikoa edo antzeko zerbait egiten dugu"

ERLOJUDENDA

Ondo pasau jaixetan!!

AINH  A

Boni Laskurain ☎ 76 47 40

BITXITEGIA



ostirala

BERRIGARA
Pazkuetako
ale berezia

1996-5-24


11



Iarunbata


EGITARAU

09:00:
XV. Marrazki eta margo lehiaketa librea 15 urtez azpikoentzat. Izen ematea Kultur Etxean. Sari banaketa 13:00etan Kultur Etxean bertan.



10:00:
Diana, auzoak esnatu ondoren San Martin plazan bilduz. Labegarietatik losu eta lokin soinu-joleak; Bolutik Udaltxistulari Banda, eta Oxirondotik Kobok dultzaineroak. Ondoren Mizpirualdera bisita egingo dute dultzainero eta txistulariek.

11:30:
Elkarteen arteko Sukaldaritza lehiaketa San Martin plazan, trikitilariak alaituta.



17:00:
Phanta Rhei taldeak antzeturako "Anbotoko dama" izenburuko kale antzerkia San Martin plazan.

17:00:
Pilota partiduak Udaltxistulariaren Pilotalekuan.

- Tolosa III eta Oregi Urionaguena eta Bazeta.
- Retegi II eta Lasa III Etxaniz eta Zezeaga.

19:30:
Erraldoi, kiliki eta buruhandien kalejira, Udaltxistulari Banda eta Kobok dultzainero taldeak alaituta.



20:00:
Bonba japoniarrak haurrentzat, San Martin plazan.

23:00:
Rock kontzertua Bideberrin: Ñaco Goñi & Malcon Scarpa, Señor No eta Fucking Wath!

23:30:
Dantzaldia Gozategi anaiekin San Martin plazan.

IRITZIA



BAKAILAUA SALTSAN

Bergarako jaien egitarauari buruz lerro batzuk idazteko esan didate eta zeri buruz eta Sukaldaritza Lehiaketari buruzkoak. Zergatik ote da?

Lagun batzuk parte hartzen dutelako urtero ikusi izan dut lehiaketa hau. Jaietarako oso egokia iruditzen zait. Ondo giro-tuta egoten da, trikitilari eta guztiz. Jendearen aldetik ere ikusle asko eta ospe handiko epaileak. Merito handia ematen diet aurkezten direnei. Alde batetik, herriko jaietan parte hartzen dutelako eta bestetik epai mahaiaren erabakia umore onarekin onartzen dakitelako. Nire partetik, behintzat, denei zorionak!

Baina emakumeak? Ez da inoiz emakumerik aurkeztu. Edozeinek pentsa dezake Bergarako emakumeek bakailaoo gertatzen ez dakitela. Ba, posturia egingo nuke, partaide horren etxeetan andrak gertatutako bakailao eder askoa jaten dutela gehienetan. Baina lehiaketa honen izenburua "Elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa" da eta esango didazue zenbat emakume azaltzen diren elkarteetako sozio zerrendetan. Beno, aipatutakoa hala izan arren, jaietara bueltatu gaitezen eta espero dut gure lagun Joxek aurreko urteetan bezala, lehiaketan gertatutako bakailaoo jatera gonbidatuko gaituela.

MAITE BARRENA

BERRIGARA Pazkuetako ale berezia

1996-5-24



IPIÑARRI ZERRATEGIA, S.L.

Eraikuntza, aroztintza, altzari eta enbalaietarako "Insignis pinu", "Alerce" eta abarren egurraren zerraketa eta lanketa.

Ibarra z/g. Postakutxa 184 20570 BERGARA ☎ 76 15 93

■ ATREBENTZIA EZPADA

Jaietako programan zerbait botatzen duzu faltan? Eta soberan?



**FELIX
ALZELAI**

Ez faltan eta ez soberan, urtero antzerkoko izaten da eta egia esan ez diot kaso haundirik egiten. Lan egitea tokatzen zait eta ez daukat jairik.



**MANOLI
BURGOS**

Niretako ondo dago programa, nahiz eta zezenketa gehiegi ez gustatu. Bestela, orokorrean, ondo dagoela esango nuke, ondo iruditzen zait.



**ARANTXA
EGIGUREN**

Denbora gutxi daramat Bergaran bizitzen eta ez ditut jaiak ondoegi ezagutzen. Niretako zezenketa soberan dago eta faltan ba ez dakit, ez zait ezer bururutzen.



**AMBROSIO
SANTAMARIA**

Egia esan ez dut programa ondo ezagutzen. Horrela egin badute, ondo egongo da. Ni, hala ere, gutxi irtetzen naiz jaietan.

■ MINGAINARI TIRAKA

Zortzi urte daramatzate elkarrekin. Larunbat goizean esnatuko gaituzte Kobok-ekin eta Udal Txistulari Bandarekin.

Ostiralean zintzo ibili behar...

Ahalik eta formalen. Zuzenean ere joan izan gara alboradara...

Gaupaseroekin elkartuko zarete askotan...

Ibiltzen garen parajeetan ez, Labegarietatik plazara etortzen gara eta.

Jendea esnatzeak ez dizue erreparorik ematen?

Horretarako ordaintzen digute. Debalde izango balitz ez ginatke irtengo, ziur egon.

Kobok-ekoek, txistulariek ala



**IOSU ETA IOKIN
TRIKITILARIAK**

zuek, nork ateratzen du zarata gehiago?

Zarata? Kobok-ekoek.

Anekdotarik?

Kalejiran gurekin etorri behar

zen beste talde batekoak kristoren kakarekin etorri eta etxera bialdu zituzten behin.

Ligatu, asko ligatzen duzue?

Soinua jotzen dugunetik bai... Zera ligatuko dugu!!

lokin, zer dute neska katalanek hemengoak ez dutena?

Katalanak baino gehiago balio dute bertakoek.

Aznarren moduan katalanez berba egiten duzu zirkulu itxietan?

Ez, *Adeu, Bon dia* eta horrelakoak bakarrik.

Antzuolarra bata, bergarra bestea. Nola konpontzen?

Ondo. Iosu Bergarakoa ez delako, Labegarietakoa baizik.

- Proiektuak
- Dekorazioa

Rincones

dekorazioa

Irala z/g. Telefonoa eta Faxa: (943) 76 52 98



Larunbata

BERRIGARA
Pazkuetako
ale berezia

1996-5-24

13



■ KARMEN SASIETA • MIZPIRUALDEN ERE JAIK

Mizpirualden pazkuetan bazkari bereziak izateaz gain, ostiralean dantzaldia dute, eta zapatuan jaietara ofiziala emateko txistularien eta dultzaineroen bisita izango dute; txarangak ez dira faltako, zezenetara ere joango dira... Mari Karmen Sasieta Pazkoetarako ilusio handiz dago.

- Pozik jaietarako?

- Bai, horixe! Pozez gainezka nago. Ailegatzeko pozik, baina bukatzen direnean ere pozik egoten naiz, normaltasunera bueltatzeko desiratzen, zarata handia egoten da eta.

- Zer egiten duzu Pazkuetan?

- Arratsaldeetan jiratxo bat egiten dut: giroa ikusi, almindrak eta txurrotxo batzuk jan, errefresko bat edan, barraketara joan, tonbolan ibili... Tonbolan oso suertetsua naiz; iaz batidora, kutxilloak eta bandeja irabazi nituen. Afaldu artean kalean ibiltzen naiz seme-alabekin.

- Mizpirualden zedozer berezirik izaten duzue?

- Bazkari ona, eta kafea eta kopa komeni zaionarentzat... Nik kafea anis txorrostadaxo batekin hartzen dut. Horretaz aparte, ostiralean dantzaldia eta merienda dugu; sorpresak eta erregaloak ere beti izaten dira. Oso dantzaria naiz; lehen lagun guztiek nirekin dantza egin nahi izaten zuten, eta



"JAIK AILEGATZEKO DESIATZEN EGOTEN NAIZ; BUKATZEKO ERE BAI".

txandan egoten ziren zain. Ondoen balsak egiten ditut. Zapatuan, berriz, txistulari eta dultzaineroak etorriko dira; txarangak ere etortzen dira... Zezenak ikustera ere joaten gara, asko gustatzen zait.

- Egitaraua begiratzen duzu?

- Ez dut kontutan hartzen, parean tokatzen dena ikusten dut.

- Zer da gehien gustatzen zaiuzuna?

- Meza nagusia eta bandaren kontzertua. Musikazalea naiz, lehen orfeoian bakarlari izan nintzen eta musika ikaragarri gustatzen zait; Pazkuetan musika emanaldi askotara joaten naiz.

- Eta gutxien?

- Berandu erretiratzea, gauez ibiltzea ez zaidalako gustatzen. Sekula ez zait gustatu, gaztetan ere ez. Lagunek adarra jotzen zidaten gauetan goiz erretiratzen nintzelako; esaten zidaten ez nuela nobixorik topatuko eta moja sartuko nintzela, baina oker zebiltzan: ezkondu eta bi seme-alaba izan ditut.

- Pazkuak ala San Martinak nahiago?

- Pazkuak! San Martinetan danborrada polita da, baina Pazkuak jai gehiago, hobeak dira.

- Lehengo Pazkuak eta oraingoak desberdinak dira?

- Lehengoak senitartekoagoak ziren, euskaldunagoak, alaiagoak, sanoagoak, jai kolore gehiago zegoen... Orain mozkor asko dago, kanpoko jendea, erdaldunak...

"Dantza, merienda, erregaloak, zezenak... jai onak izaten ditugu"

**EGUNERO GOIZEKO 8etan ZABALTZEN DUGU!!
KAZOLATXOAK, PINTXOAK ETA BOKADILLOAK DIRA GURE BEREZITASUNAK.**

*Ondo pasau
jaiak!!*


PIZINETAKO

*Ondo pasau
jaiak!!*

TABERNA

BERGARA ☎ 76 53 55

ZURE AMETSETAKO BAINUA, OBRAK HASI AURRETIK IKUS DEZAKEZU




AKURARRA

DIBA. Bainuaren Diseinu Integrala.

DIBA Bainuaren Diseinu Integralerako programaren bitartez, zure ametsetako bainua obrak egin aurretik ikusi ahal izango duzu.

Zatoz Luis Mari Larrañaga Iturgintzara, atsegin haundiz eta profesionaltasun osoz hartuko zaitugu!!



Iturgintza

Matxiategi, 16 BERGARA
☎ 76 29 97 - 76 04 22

arrañaga s.l.



Aranerrek 9, beheka ☎ 76 51 20

BOLU

GIMNASIOA

STEP 2.500



BIZIKLETA



**CLIMBER
3.000**




**ECLIPSE
SPORT**

ESKI

RUNNER 2.000



ARRAUNA



BOLU GIMNASIOAn

gela berri bat egokitu dugu.

Merkatuko gimnasia makinarik berrienak.

Zatoz eta ezagutu itzazu gure instalazioak!!

■ GOZATEGI ANAIAK • ZAPATUKO TRIKITI GAUA

Aski ezaguna den Gozategi taldea entzungo dugu zapatuan. Asier (soinua), Iñigo (baxua) eta Ainhoa (panderoa) San Martin plazan arituko dira jaia alaitzen. Euri buruz zertxobait gehiago jakin nahian Ainhoa Gozategirekin jardun dugu.

AITZIBER AZKONDO

- Noiztik plazarik plaza?

- Asier eta biok orain dela 12 urte hasi ginen. Orain dela hiru urte Iñigo ezagutu genuen eta taldea sortu zen.

- **Talde berria sortu eta izen berarekin jarraitzea pentsatu zuten?**

- Asier eta biok txapelketa eskotan ibiliak gara eta "Gozategi anaia-arrebak" izenez ezagutzen gintuztenez, izena aldatzea nolabait hasieratik hasia zela pentsatu genuen, hori dela eta hirukoteari "Gozategi taldea" izena ipini genion.

- **Nola definituko zenuke egiten duzuen musika?**

- Alai, freskoa, edozein entzulerentzat egindako musika: haurrentzat, gazteentzat egindako musika atsegina.

- **Bigarren lana kaleratzeko prest ei daukazue.**

- Bai, kantu berriak dira, baina musikan bide beretik jo dugu.

- **Iaz Nor-nori-nork izan zen udako kanta eta aurten disko be-**



"URTEAK PASA AHALA KALITATEA HOBETUZ JOAN GARA".

rriko Nirekin izango dela dirudi.

- Hori entzuten omen da. Baina ezin dut hala izango denik esan; dena den, atsegina izango litzateke horrela izatea.

- **Urte hauetan zehar ezagunak egin zarete Euskal Herrian. Nola daramazue hori?**

- Ondo. Pertsonalki esan behar dut ez garela ezer aldatu; jendeak ezagutzen gaitu eta gustora gaudu. Harrera ezin hobea izan dugu.

- **Euskal Herritik kanpo?**

- Argentinan izan ginen "Gozategi's blai" izeneko musika eta dantza ikuskizuna eskeintzen. Gainera, gurekin Edu Muruamendiaraz dantzari bergarra izan zen. Bestalde, azkenaldi honetan Kataluniatik ere jaso ditugu deiak.

- **Lehen laneko produktorea Fran Iturbe izan zen eta orain ere zuekin dabil erromerietan.**

- Diskoko produktorea Fran izatea diskoetxeak proposatu zigen. Oso gustora aritu ginen elkarrekin eta ordutik plazarik plaza ere gurekin dabil. Bigarren diskoan ere bera izan da produktorea.

- **Urteak pasa ahala taldearen kalitatea ere hobetuz joan da?**

- Noski, jendeak hala eskatzen du. Gaur egun hasieran baino instrumentu gehiago erabiltzen ditugu, bateria, baxua... ekipoa ere hobea da. Urteak pasa ahala esperientzia handiagoa dela kontutan hartuz, kalitatea hobetuz joan behar da.

- **Iazko Pazkuetan ere Bergaran izan zineten.**

- Txoznetan jo genuen. Gainera orduan izan zen Fran Iturbek gurekin jo zuen aurreneko aldia, Bergaran estreinatu zen Gozategi taldeko kide moduan.

"Alaia, freskoa, edozeinentzat egindako musika da gurea"

DEPORTATU BAT egin BAT

Zure diru-laguntza kontu zenbaki honetan:
CAJA LABORAL-EUSKADIKO KUTXA: 11.384



larunbata

BERRIGARA
Pazkuetako
ale berezia

1996-5-24

17



EGITARAUA

08:00:

Udal Txistulari Bandarekin alborada.

09:00:

Entzierroa Barrenkaletik zezen plazaraino. Ondoren enbolatuak, Kilkir txarangak alaituta.

09:00:

LIX. Pentekoste Saria Txirindulari lasterketa 1. eta 2. mailako afizionatuentzat.

11:00:

Meza Nagusia San Pedro elizan, Udalbatza partaide delarik eta Udal Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak lagunduta.

11:30:

Hamabost urtez azpiko haur bikoteentzako Euskadiko XIX. Dantza Askatuko Txapelketaren kanporaketak, San Martin plazan.

12:00:

Afizionatuen Pentekoste pilota txapelketako finalak.

FINALA:

Berraondo eta Rai

Tirapu eta Amandoz.

3. ETA 4. POSTUA:

Apezetxea eta De Luz

Artola eta Errasti.



12:30:

Udal Musika Bandaren kontzertua Espaloian. Egitaraua:

- ENTRE AZAHARES. (pasodoblea). Alfredo Gonzalez Chirlaque.
- CAPRICO ITALIANO. P. Tchaikowsky.
- AQUARIUM. (opertura 5). J. de Meij.
 - Allegretto
 - Andante
 - Allegro giocoso.
- BIG BAND SIGNATURES. J. Higgins.
- Jig. G. Holst.

Zuzendaria: Alfredo G. Chirlaque.

17:00:

Pilota partiduak Udal Pilotalekuan.

- Zabala eta Oliden

Ariznabarreta eta Apeztegia.

- Alustiza eta Armendariz

Salaberria eta Galarza III.



17:30:

San Martin plazatik zezen plazaraino kalejira, Bergarako txarangak eta Elgoibarko dultzaineroek lagunduta.

18:00:

Zezenzaleak taldearen laguntzaz, Salamancako Lopez Chaves ganadutegiak antolatutako zezen festa. Toreroak: Jesus Millan eta Luis Antonio Gaspar "paulita".

19:00:

Bergarako txaranga eta Elgoibarko dultzaineroak herriko kaleetan.

22:00:

Suzko zezena, San Martin plazan.

23:00:

Rock kontzertua San Martin plazan: Anestesia, Kashbad eta Memphis Belle.

23:30:

Nueva Alaska taldearekin dantzaldia Espaloian.



IRITZIA



LENGO PAZKUAK

Denbora baten Bergarako Pazkuak famatuak ziran. Negua pasauberrri, inguruko errietatik jende asko etortzen zan urteko lenengo jaiak diralako, eta baita Bergarako neskak "guapa" famia zeukelako ere. Baña ez pentsatu errez zanik Pazkuetan "guapa" agertzea. Neska gazteak alegin andia egiten zuten: udaberriko eguzkiarekin kixkaldu, udako soñoko berriak gertatu; illeak, berriz, txukun-txukun, orduko modara, eta abar, eta abar. Jaiak ez ziran ostiralean asten, orain bezala, baizik eta larunbat arratsaldean. Giganteak irtetzen ziran kalejira egiten eta jendeak abesten zeban: Gigantes, gigantes, vestidos elegantes; gigantes, gigantes, vestidos de percal. Mari-Katalin gona-gorritxu, artzai Joxe Vicente. Koloklon koloklon dijoaz alkate soñuan. Gabeko zortzietan Udal Musika banda pasatzen zan kalez-kale jaiei asiera emateko. Igandean goizeko seiretan txistulariek beko plazan "alborada" zoragarria jotzen zuten eta ura bukatutakoan biribilketa alai bat jotzen kaleetan zear joaten ziran. Beranduago bandaren pasakalea, eta eguerdian kontzertua Espaloian: erri guztia joaten zan dotore-dotore. Teatrua be askotan egoten zan: urte baten Durangoko talde bat etorri zan, beste urte batzutan Donostiako talde bat. Zirkoa Mizpirualdeko plazan, barrakak, zinea... Gaubean, berriz, musika Espaloian, baña orduan ez zan kontziertua baizik eta jendeak naiko dantza egin zezan. Astelenean kanpotik jende asko etortzen zan batez ere Arrasatetik. Irugarren eguna, asteartea, kuadrilen eguna, soga-muturra eta abar... Eta asteazkenean jende guztia lanera. Baña orduan jendea ez zan kanpora irteten orain bezala, baizik denak errian gelditzen ziran; gañera konbidatuak egoten ziran etxe askotan.

ASUNTXI IDARRETA

■ ATREBENTZIA EZPADA

Bezperan juerga eginez gero, biharamona zelan pasatzen duzu?




**EMILIO
ACEBO**

Bueno, daukadan edadearekin ez dut juergarik egiten baina gure gazte denboran hurrengo egunean lana izaten genuen eta hori zen erremediorik onena.



**INES
PINEDA**

Astebururo kanpora joaten naiz eta, beraz, ez naiz jaietan izango, baina biharamonarekin nagoenean ez dut ezer berezirik egiten, berriro kalera irtetzen naiz.



**IÑAKI
RUBIO**

Normalean ohean geratzen naiz, deskantsatzen. Ez dut aparteko gauzarik egiten, gero ondo bazkaldu eta berriz kalera.



**AINARA
MARQUEZ**

Jaietan juerga egiten dut eta biharamona pasatzeko lo egin, ohean ordu batzuk deskantsatu eta ondoren, normal-normal kalera irtetzen naiz.

■ MINGAINARI TIRAKA

Joxe Mari Larrañaga, "Alaia", Zezenzaleak taldekoa da. Domekan hasi eta martitzenera arte zezen plazan antolatuko diren ekitaldietan egongo da.


MARIA GOMEZ

Zer nolako harrera izan dute zezen plazako ekitaldiek?

Aurten laugarren urtea da eta gehiengo baten erantzuna ona izan da. Jaietan 9.000 pertsona inguratzen da zezen plazara.

Entzierroa ala sokamuturra?

Nahiago nuke sokamuturrak entzierroak daukan indarra hartuko balu. Sasoiko nengoenean sokamuturran



**JOXE MARI LARRAÑAGA
ZEZENZALEAK TALDEKOA**

parte hartzen nuen, baina egun ez dut entzierroan korrika egiteko asmorik.

Gaztaroko jaiak?

Gaueko hamabiak arte dantzan

egin eta ordubaterdiak aldera etxera. Tabernak goiz ixten zituenez ez zegoen egungo gaupasa egiterik. Gaur berdina gertatuko balitz gazteak goiz etxeratuko lirateke. Ez dago dudarik, jaraberik ez badago, dena bukatu da.

Egun nola bizi dituzu jaiak?

Larunbatean Sukaldaritza lehiaketan parte hartzen dugu. Lehiaketan bata bestearen kolkotik barre egitea da helburua. Martitzenean kuadrilako 40 lagunekin batera hamarretakoa, Sagarren bazkaria, Pol-Polen "numerittoa" eta errematatzeiko Pikupen afaria egiten dugu.



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

zumelaga
JATETXEA

IGANDEETAN
ZABALIK!!

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!



igandea

BERRIGARA
Pazkuetako
ale berezia

1996-5-24

19

■ "PAULITA" ETA MILLAN • ZEZENAREN ZAIN

Zezenzaleak taldeak antolatzen duen laugarren txekorketa izango da igandean, 6etan. Etorkizuna duten toreatzaile gazteak ekarri nahirik, herriko zezenzaleek Luis Antonio Gaspar "Paulita" (18 urte) eta Jesus Millan (16) aragoiarrak aurkeztuko dituzte aurten.

Jesus Millan eta Luis Antonio Gaspar "Paulita" Bergaran lehenengoz pasa den maiatzaren 11n izan ziren, Pikupe elkartean egindako aurkezpenean. Bi toreatzaile gazteak txundituta geratu ziren bertako giroarekin. "Paulita"k azaldu zigunez, "oso herri polita da Bergara. Egia esan, ez genekien txekorketarik egiten zela eta oso pozik jaso genuen hona etortzeko gonbidapena. Hemen dagoen giroa ikusita asmatu egin dugula esan dezaket. Gainera primeran datorkigu gure errejiotik irtetzea, beste afizio bat ezagutzea beti da aberasgarria guretako".

Jesus Millanek Orozkon eta Sopuertan toreatu zuen iaz eta oso pozik geratu zen bertako afizioarekin. "Bai, oso afizio sutsua eta toreoaz asko dakiena iruditu zitzaidan, harrিতa geratu nintzen. Esperientzia benetan polita izan zen". "Paulita" ere Bergaran toreatzeko irrikatzen dago: "Gipuzkoara egiten dudan lehen bisita da eta komentatu didatenez, afizio handia dago hemen".



MILLAN ETA "PAULITA" TXEKORKETAKO KOADROAREN AURREAN.

Paulita eta Millan oso lagunak omen dira eta biek ere helburu bera daukate iganderako. Millanen hitzetan, "korrída ona izatea eta biok egun haundi bat izatea izango litzateke gure asmoa. Ikusi egin behar... Guk behintzat guri dagokigun guztia egingo dugu jendeak primeran pasa dezan eta ea gure helburuak betetzen diren...".

ENKASTE ONEKO TXEKORRAK

Aurrean izango dituzten txekorrei buruz zera adierazi digute Aragoiko toreroek: "Kartelean ikusi

dugunez, garantia guztia dago txekor onak izango direla. Enkaste oso ona eta enbestitu dezaketela argi dago. Kontuz ibili beharko dugu...". Beldurrik ez zaie antzematen behintzat; "beldurra badaukat jakina, baina hori gainditu eta ahal den bezala aguantatu beharko dugu...".

Bergarako txekorketaren ondoren, "Paulita"k zein Millanek pika-tzaileekin debutatuko dute laister. Aurretik, Bergaran faena bikaina egitea lortzen badúte, argi daukate euren lana nori dedikatu. "Txekorrak onak badira publikoari, disfrutatu dezan. Baina hori martxan ikusi behar da. Hala ere, faena ona bada, duda barik publikoari eskainiko diogu. Neskaren bati? Zergatik ez? Beharbada bai, ziur hemen neska politak izango direla...".

"Faena ona irtetzen bada, publikoari eskainiko diogu"



YOSUNE ESTETIKA ZENTROA

Simon Arrieta 3, behea BERGARA ☎ 76 09 08

- GORPUTZAREN TRATAMENDUA:
 - DRENAJE LINFATIKOAK.
 - ZELULITISAREN AURKAKOAK.
 - GUTXITZEKOAK ETA INDARTZEKOAK.
 - TONIFIKATZAILEAK ETA BIRMOLDATZAILEAK.
- AURPEGIKO AZALAREN TRATAMENDUA.

- DEPILAZIOA.
- SOLARIUMA.
- AURPEGIKO AZALAREN AZALAREN TRATAMENDUA: 3 LANPARA BP
- MAKILAIK.
- ESTETIKARAKO NAHI DUZUN GUZTIA.

Danetik eta onetik BEDELKARreko dendetan.



Bergarako dendariak jai zoriontsuak opa dizkiete herritar guztiei.



**Altzairu
fundizioa eta
egituretako
perfilen
laminazioa**

**ALTOS HORNOS
DE BERGARA S.A.**

Ibarra kalea, 6
Telefonoa: 76 19 40
Faxa: 76 52 43
Postakutxatila: 5
20.570 BERGARA



GUIPUZCOANA

Paketean garraio eta banaketa

BERGAR

San Juan Erreka. Elgetara bidea

Tfnoa: (943) 76 36 42 / Faxa: (943) 76 54 2



◆ UDALETXEKO FAXA ☎ 77 91 63

BERGARAKO UDALA ZURE ZERBITZURA

◆ ALKATETZA	☎ 77 91 01
◆ ARTXIBOA	☎ 77 91 32
◆ BIDEOA	☎ 77 91 58
◆ EUSKARA	☎ 77 91 66
◆ HAUR DINAMIZAZIOA	☎ 77 91 60
◆ HIRIGINTZA	☎ 77 91 68
◆ IDAZKARITZA	☎ 77 91 00
◆ KIROLAK	☎ 77 91 67
◆ KONTUHARTZAILETZA	☎ 77 91 64
◆ KULTUR ETXEA	☎ 77 91 58
◆ LIBURUTEGIA	☎ 77 91 62
◆ MUSEO ETA ONDAREA	☎ 77 91 61
◆ OBRA ETA ZERBITZUAK	☎ 77 91 52
◆ ONGIZATEA	☎ 77 91 65
◆ TURISMOA	☎ 77 91 28
◆ UDALZAINGOA	☎ 77 91 06
◆ UDAL EUSKALTEGIA	☎ 76 44 53
◆ ZAHARREN EGOITZA	☎ 76 13 68

BERGARAKO UDALA

JAIETAN GUZTIENTZAT GOZATZEKO AUKERA:

■ HAURRENTZAT:

Marrazki lehiaketa, kale antzerkia, jolas parkea...

■ GAZTEENTZAT:

Rock jaialdiak, entzierroak, herri bazkaixa...

■ NAGUSIENTZAT:

Sukaldaritza, kontzertuak, dantzaldiak...

■ GUZTIENTZAT:

Pilota, dantzariak, erakusketak...

Ondo pasa Pentekoste jaietan!!

TELAETXE S.A.

SAIL BERRIA: TAPIZEN ERAKUSKETA

OIHALAK eta OIHAL PUSKAK

Elgetako bidea (gasolindegitik 300 metrora, "Cotonos Agirrezabal"en ondoan)

Telefonoak: (943) 76 39 40 - 76 39 41 • Faxa: 76 56 38 • BERGARA



Aukera haundia oihal eta pusketan, metroka zein pisura.

EDREDOI NORDIKOAK.

**TAPIZEN ERAKUSKETA: Zetak, kordinak, toailak,
yakareak, izarak, tapizak, e.a...**

**KONFEKZIO SAIL BERRIA bisita ezazu: Galtzak, parkak,
alkondarak, txandalak, sudaderak, jertseak, haurrentzako erropak...**

FABRIKAKO PREZIOAN!!

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 09:00-12:00 eta 15:00-19:30

Zapatuetan: 10:00-13:00 eta 15:00-19:30

MEMPHIS BELLE • HARD COREA GUSTOKO

Hiruzpalau bat urte dira taldea osatzeko ideia izan zutela. Ia bi urte eman zituzten hori lortzeko. Jadanik sei kontzertu eman dituzte eta gogoz dabilta aurrera jarraitzeko.

AMAIA ALBERDI ETA ELENA FERNANDEZ

- Zergatik Memphis Belle?

- Asko gustatu zitzaigun filme bategatik izan zen. Hasiera batean zenbait izen proposatu genituen, baina azkenean Memphis Belle aukeratu genuen denon gustokoa zelako.

- Noiz eta zelan hasi zintaten?

- Orain dela 3-4 bat urte taldea sortzeko asmoz elkartu ginen. Jotzeko ideiarik ez izan arren, dirua lortzen aritu ginen instrumentuak erosteko. Lokal bat lortzea zaila gertatu zitzaigun baina azkenean Zabalotegin lortu genuen txiki bat. Hasieran hiru ginen: Manu, Oskar eta Aitor. Gero Javi hartu genuen eta azkena David izan zen.

- Musika estilo finkorik bai?

- Estilo guztiak lantzen ditugu, ez dugu inolako estilo finkorik. Gainera, oso abesti ezberdinak egiten ditugu, gure arteko gustuak ere ezberdinak baitira.

- Ze hizkuntzatan abesten duzue?

- Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez aritzen gara. Laister txinoz ere hasteko asmoa daukagu (barez).



IGANDEKO ROCK KONZERTUAN SAN MARTIN PLAZAN JOKO DUTE.

- Kanpoan jotzen ohituta?

- Sei kontzertu egin ditugu oraingoz. Lehen Pol-Pol tabernan izan zen, gero kanpoan ere aritu gara eta joan zen urteko Bergarako jaietan beste behin.

- Maketarik?

- Gustatuko litzaiguke grabatzea..., beharbada aurrerago.

- Nola moldatzen zarete abestiatik osatzeko?

- Edonork ekarri dezake ideien bat. Gero guztiaren artean egiten ditugu konponketak.

- Eta kontzertuak prestatzeko?

- Hasten dagoen talde bat gara, beraz ez da oso erraza. Normalean gaztetxeetara mugitzen gara jotzeko asmoz, besteetan zenbait tabernatarara. Dena den, arazoak

izaten dira. Leku gehienetan beste talde batzuekin jotzea eskatzen dute.

- Bergaran talde gutxi al duzue?

- Bergaran badaude taldeak, baina askok afizioz jotzen dute eta ez dira kanpora ateratzen. Errezagoa litzateke kanpora ateratzeko prest dauden taldeak egongo balira, bidaietako gastuak etab. banatzea posible izango litzateke.

- Laguntzarik jaso al duzue?

- Udalak laguntza batzuk ematen ditu. Hurrengo urterako aurrekontu bat egitea eskatzen digute, baina urte batetik bestera zer egin behar dugun jakitea ez da batere erraza.

- Talde bat osatzeko asmoz dabilzan gazteei zer esango zenike?

- Lehenik eta behin, gogoa jaritzeko. Gero ondo antolatzen badira eta serio hartzen badute aurrera aterako dira.

"Bergaran badaude taldeak, baina askok afizioz jotzen dute"

Arruriaga, 1 behea ☎ 76 58 16

ELKAR Fotokopiak

ONDO PASAU JAIAK!!

Kautxozko seiluak
Publizitatea ordenadorez
Fotokopiak koloretan
Plastifikazioak
Enkuadernazioa
Jendearentzako jaxa



igandea


BERRIGARA
Pazkuetako
ale berezia

1996-5-24

25



EGITARAUUA



08:30:

Kalejira Los Incansables txarangak alaituta.

09:00:

Entzierroa Barrenkaletik zezen plazaraino. Ondoren enbolatuak.

10:00:

Ollagorra Elkarreak antolatutako plater tiraketa San Juanen.

11:30:

Jolas parkea: karrak, gaztelu puzgarriak... Seminarioko patioan 13:30ak arte.

11:30:

Barraketan haurrentzako prezio bereziak eguerdiko ordu biak arte.

11:30:

Udal Musika Bandaren kalejira.

12:30:

Udal Musika Bandaren kontzertua Espaloian.

Egitaraua:

GORLA. (Martxa). Alfredo Gonzalez Chirlaque.

TANCREDI. (Obertura). G. Rossini.

DIAGRAM. A. Waigneim.

DANZAS FANTASTICAS. (Orgia). J. Turina.

PLAYAS DE RIO. K. Vlack.

- Trocadero playa.

- Ipanema playa.

- Copacabana playa.

Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque.

16:00:

Seminarioko patioan jarritako jolas parkearen jarraipena iluntzeko 8ak arte.

17:00:

Profesionalen pilota partiduak Udal Pilotalekuan, Asegarcek antolatuta.

• Agirre eta Urna

Olaizola eta Imaz.

• Retegi II eta Berna

Capellan eta Errandonea.

18:00:

Herri festa, Los Incansables txarangak animatuta, zezen plazan.

20:00:

Los Incansables txarangaren kalejira.

23:30:

Rock kontzerua Bideberrin: Bonzos, Deabruak Teilatuetan eta Why Not.

23:00:

Tarantela taldeak alaituta, dantzaldia San Martin plazan.



IRITZIA



INGLESA ETA JAIAK

Egun asko ez dela, Ingoterran, laneko lagun bati Bergarako jaiak zer ziren azaldu nahian jardun nuen. Jai hitzak spaghetti western-a, jatetxe mexikar bateko beherapenak, edo zartzakaiz jositateko astoa omen zekarkion burura. Ez nekien nondik hasi eta lehenengo bururatu zitzaidana izan zen jaiak bost egun eta bost gau irauten zutela, eta egun eta gau horietan inor ez zela lanera joaten eta, hala ere, hileko soldatak ez zuela beherapenik izaten. Horrek erabateko nahasmendua sortu zion eta oraindik uste dut ez duela hartatik irten. Jaietako brusen berri ere eman nion eta baita txoznak kale erdian gau osoan musika-hots batean jarduten zutela ere. Kontatu nion jaien gozagarririk onena ardoz eta coca-colaz egindako edari bat zela eta hiru libra inguruan lor zitekeela. Eta, jende nagusiak, nola agoantatzen du hori guztia bost egunetan zehar? Ez al dira kexatzen? Ez al diote polizia deitzen? Ez, gehienek herritik alde egiteñ dute trumilka kosta aldera, han 75 librarekin lasai atsedean har dezakete eta. Baina izango dira zezen-korridak, ezta? Bai baina orain dela gutxi berpiztu den ekintza da, eztabaida haundia sortarazi zuena, eta bere kontrako sinadura eta manifestazioak ere izan ziren. Nire lankideak buruari hazka egin zion. Ez zuen ezer ulertzen eta zer esan ez zekiela "oso ondo!" batekin amaitu zuen.

JOSE DIAZ

**BURDINAKI DENDA
INDUSTRIARAKO HORNIKUNTZAK**

LAKOTA O.B.

Amillaga, 1 (3. pabiloia) BERGARA
Telefona eta faxa: 76 08 32

**AZBEren Mecatronic zerrailaren
banatzaile ofiziala.**



METABO harramintak

- Harria lantzeko makina.
- Taladroak.




■ ATREBENTZIA EZPADA

Zein da gehien gustatzen zaizun barraka?




**RAISA
MANIAGA**

Noria. Bueno, beldur piska bat ematen dit... Amatorekin eta bere lagunekin, eta nire lagunekin joaten naiz. Eta igela ere gustatzen zait.



**NIELKA
IBARGUREN**

Sorginarena, tren txutxua... Auto-txoeketan ere ibiltzen naiz, bastante txoke jotzen dut. Amatorekin eta aitaxorekin joaten naiz.



**IRATI
ALBERDI**

Tren txutxua. Beste asko ez dut probatu baina bueltak emateko hori oso ondo dago. Ni amarekin, aitarekin eta ahizparekin joaten naiz barraketara.



**JON
UGARTE**

Noria, dragoiarena eta tren txutxua. Aitarekin, amarekin eta nire anaiarekin joaten naiz eta jaietako gauzarik onena dira barrakak.

■ MINGAINARI TIRAKA

Amaia Santxo eta Haritz Jaso (6. maila), Kuadrilan 25 lagun dira eta Bergarako Jaiak ondo pasatzeko prest daude.

MARIA GOMEZ

Jaietako onena?

Barrakak, eta airetik ibiltzen badira hobe. Astelehenean gutxiago balio dutenez, gehiago ibiliko gara.

Jolas parkea, herri tren, karaokea... Zein gustokoen?

A: Gu karaokera behin joan gara. "El tractor amarillo" abestu genuen.

H: Kars kotxeak asko gustatzen zaizkigu.



**AMAIA ETA HARITZ
JAIETARAKO PREST**

Gauean zer egiten duzue?

A: Plazara joaten gara. Baina neskak bakarrik egiten dugu dantzan; mutilei ez zaie gustatzen, eta elkarrekin dantza

egiteak lotsa ematen digu. H: Mutilak barraketan ibiltzen gara, petardoak ipintzen ditugu, urez betetako puxikekin jolasten gara...

Ze ordura arte gelditzen zarete kalean?

Lagun guztiak gaueko 01:30ak arte gelditzen gara.

Jaietan gehiago ligatzen al duzue?

A: Bai, jaietan astoratuago egoten gara eta aukera gehiago dago.

H: Ez dakit.

Begarako Jaiak zenbat egun eduki behar dituzte?

A: Aste bat gutxienez.

H: 20 egun.

SANTOS Irrati-TB

Masterreka, 2
BERGARA
☎ 76 26 10

SALMENTA ETA ZERBITZU TEKNIKOA

Koloretako telebista
Bideoa

Argiztapena
Soinua

Elektrodomestikoak
Sukaldeko altzariak

Antenak
e.a.

Ondo pasau jaietan!!



astelehena

BERRIGARA
Pazkuetako
ale berezia

1996-5-24

Raimundo Blanco "Rai", 21 urteko pilotaria, bigarren urtez jarraian Bergaran jokatzen ikusteko aukera izan dugu. Jotzaile bikaina, Udal Pilotalekura joaten diren zaletuen artean txalo gehien jaso dituen pilotaria izan da. Berraondorekin batera Pentekoste txapelketako finala jokatuko du igande eguerdian frontoian.

- Nola ikusi duzu Apezetxea eta De Luzen aurkako finalerdia?

- Hasieran galtzen hasi gara eta nahiko zail ikusi dut. Baina gero partiduaren erdi aldera aurrea hartu dugu eta erraz samar irabazi dugu.

- Igandeko finalerako Tirapu eta Almandoz...

- Bikote gogorra, atzean gogor jotzen dute eta gero aurrean errematatzailerak onak dira. Halere, nahiago dut hauen kontra jokatzea Artola eta Goñiren aurka baino.

- Nola ikusi duzu zure burua Villa de Bergaran eta Pentekoste txapelketako finalerdian?

- Joko aldetik ondo ibili naiz eta ezkerrekin bestetan baino askoz hobeto ibili naiz. Halere, finala ezin izan genuen irabazi. Partidu hartan materiala nahiko eskasa izan zen, txapelketan zehar erabilitako pelota berberak erabili genituen. Ondorioz, pilotak oso gastatuta zeuden eta dominatzea zaila izan zen.



"AZKEN HIRU URTEOTAN CAPELLAN ETA TITINEKIN ENTRENATU DUT".

- Zer moduz Iker Muruamendiarazekin?

- Txapelketan zehar ondo jokatuko du. Baina finalean telebistarekin eta etxean jokatzen zenez, frontoia zaletuz beteta zegoen eta nahiko urduri ikusi nuen.

- Bergarako Udal Pilotalekua?

- Aurten oso gustora ari naiz eta Bergarako frontoian ere oso ondo ikusi dut neure burua.

- Udan profesioaletara pasatuko omen zara...

- Ez, hori ez da egia. Azaroan Argentinan Mundialak jokatuko dira eta bertara joateko asmoa dut. Gero posible baldin bada, profesioaletara pasatzea gustatuko litzaidake. Udaran hainbat torneo jokatzea daukat pentsatuta, Mun-

dialak gertatzeko asmoz.

- Burgoskoa eta pilotaria...

- Izan dira ni baino lehenago beste 3 edo 4 pilotari, baina gaur egun bakarretakoa naiz.

- Nola dago pilota Burgosen?

- Hemen Euskal Liga, Herri Arteko Txapelketa eta beste hainbat txapelketa daude. Hori gero igartzen da, hemen maila handiagoa dute pilotariek. Burgosen badaude pilotariak baina ez dute hemengo maila.

- Pilota jotzen duzun moduan jotzeko asko entrenatu behar izan duzu?

- Bai, asko kostatu zait hori lortzea. Azken 3 urteetan asteazkenero Errioxara, Bañosera, joaten naiz entrenatzera Titin, Capellan, Santi eta Minguezekin eta asko igartzen da.

- Igandeko finalean Berraondorekin txapeladun?

- Berraondo jokalaria ona da eta uste dut irabaziko dugula.

"Berraondo pilotari ona da eta igandeko finala irabaziko dugu"

GAR



Sukaldeak. Horma armairuak. Neurritza egindako altzariak. Ateak eta leihoak. Arozlanak.

ERAKUSKETA: Arruriaga 3, behea ☎ 76 58 86

Ondo ibili jaixetan!!





**Egurrezko apalategiak.
Eskulanetarako gaiak.
Zurezko ate eta leihoak.**

Neurrira ebakitako tableroak, apalak eta kajoiak.

Horma armairuak.

Apalategiak.

Zokaloak, tarimak eta parketak.

Era guztietako moldurak.

Sarrailak eta manillak.

ARDATZA
Brikolaketa

Aroztegia: Masterreka 18, behea
Denda: Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

Kruz Gallastegi, 9

BERGARA

☎ 76 07 37

Tapizak, mokatak, alfonbrak



GASTON Y DANIELA
TAPICERIAS • MOQUETAS • ALFOMBRES

OPTICOS ASOCIADOSek PACK GAZTE

BERRIA ESKAINTZEN DIZU

- 6 HILABETERAKO ERABILI ETA BOTATZEKO UKIPEN LENTEAK.
- 355 mililitroko RENU SOLUZIO BAKARREKO BI POTE.
- LENTILLENZAKO KUTXATXOA.

17.000 pzta.



BAUSCH & LOMB

ERABILTZEN DITUZUN OHIKO UKIPEN LENTEAK

14.000 PZTA.KO (*)

BAUSCH & LOMB

BIGUNENGATIK ALDATUKO DIZKIZUGU.

ETA GAINERA, EGUNERO ERABILI ETA BOTATZEKO

New Day

LENTILLAK ERREGALATUKO DIZKIZUGU PROBA DITZAZUN.

* GALDETU GRADUAZIOAK



CIONE
GRUPO DE OPTICAS

1996ko MAIATZAREN 31 ARTEKO ESKAINTZA.

P. Manso

Irizar, 2 BERGARA

■ DEABRUAK TEILATUETAN • TOKI GUZTIETAN

Deabruak Teilatueta taldea Aritz Mendieta (ahotsa), Iñigo Arruti (bateria), Imanol Ubeda (kitarra) eta Jon Ander Ubedak (bajoa) osatzen dute. Astelehenean Bideberrin joko dute. Jon Anderrekin berriketan egin dugu.

- Zela definitzen duzue zuen musika?

- Guri ez zaizkigu etiketak gustatzen, baina zerbait esatekotan rock edo hard-core izan daiteke. Gure musika ez dago beste talde batzuen moduan, esate baterako Anestesia, estilo garbi batera mugatuta.

- Zenbat abesti eskeiniko dituzue asteleheneko kontzertuan?

- Berrigararen V. urteurrenean Bergaran eskainitako kontzertuan bezala, 16 edo 18 kanta joko ditugu Itsumutugor diskokoak.

- Gabonetan Gartzela Zaharrean izandako kontzertuan zer moduz?

- Bergara berezia da guretzat. Kontzertu hartan Xabier Montoiarekin, hau da, M-ak taldekoak izandakoekin jo genuen eta guri beti gustatu izan zaigu M-ak taldea. Euren jarraitzaile amorratuak izan gara eta elkarrekin jotzea oso emozionantea izan zen.

- Nondik atera duzue taldearen izena?

- M-ak taldea asko miresten dugu. 15-16 urte genituenean eu-



"PERTSONEN ARTEKO INKOMUNIKAZIOA GERO ETA HAUNDIAGO DA".

ren kontzertu gehienetara joaten ginen. Garai hartan egiten zen musikarekiko aurreratuak zirela esango nuke. Euren abesti baten izena hartu dugu taldeari izena jartzeko.

- Abestien letrari garrantzia ematen al diozue?

- Bai, oso inportantea da. M-ak taldeko Montoia izan dugu eredu musikalki eta mezuari ere garrantzia ematen dio. Gaur egun komunikazioaren aroan gaude, "Informazioaren autopistak", e.a..., baina elkarren arteko inkomunikazioa eta indibidualismoa gero eta handiagoak dira. Gure musikarekin komunikazioa lortzen saiatzen gara.

- Zerbaitetarako balio izan al dizue Euskadi Gazteako zerrendaburuan egoteak?

- Euskal Herria unibertso txiki bat da eta komunikabideek garrantzia handia dute. Halere guretzat hori ez da obsesio bat, musika guretako beste batzuk mendia edo kirola egiten duten moduko hobby bat da.

- Ze harreman duzue Euskal Herriko beste taldeekin?

- Kontzertuetan jendea ezagutzeko aukera izaten dugu (beste taldeetako musikoak, antolatzaileak), eta harreman onak egiteko aukera dago. Esan Ozenkin gaude eta harreman estua dugu Anestesia, Dut eta Negu Gorriakekin. Musika ezberdina egin arren badago sintonia bat.

- Zuen ametsa?

- Ametsa bizitzen ari gara da. Esan Ozenkik gure aldeko apostua egitea, diskoa atera dugu eta kontzertu asko ditugu. Ez gara oso pretentziosoak eta horrela jarraituko bagenu oso pozik egongo ginateke.

"Musikari dagokionez M-ak taldea dugu eredu"

ILEAPAINDEGIA



DIEGO VALOR

MISTOA ETA ESTETIKOA:

Zubleta 38, behea

☎ 78 37 70

GIZONEZKOAK:

San Lorentzo 2, behea

☎ 78 58 08

BERGARA



astelehena

BERRIGARA
Pazkuetako
ale berezia

1996-5-24

31



Jaietan lanean



FRANCISCO BARQUERO UDALTZAINA

Francisco Barquerok

(56 urte) zilarrezko eztaiak beteko ditu datorren urtean udaltzain modura. Aurten ere jaietan lan egitea tokatu zaio. "Trafikoa ordenatu eta ahal den moduan lagundu, hori izaten da gure lana. Baina ez zait inporta jaietan lan egin behar izatea". Egunero zortzi orduz lan egin beharko du: "hiru txanda daude eta guretako ordurik txarrenak goizeko 6etatik 10etara izaten

dira. Jende asko egoten da zer egiten duen ez dakiela ere... Kalterik? Beti egoten da zerbait baina ez gehiegi". Jaiak ez ditu gustoko: "ondoan etxean egoten naiz, ez daukat zentrora etortzeko ohiturarik, egunero lanean hemen ibiltzen naiz eta".

ARANTXA URBISTONDO EGUNKARI SALTZAILEA

Arantxa Urbistondok 14 bat urte daramatza Bideberriko Txurrerian lanean. Jaietan, lau laguneren artean, 24 orduz zabaltzen dute kioskoa. Bere hitzetan, "txoznen ondoan egonda zarata asko egoten da hemen baina jendea orokorrean ondo portatzen da, nahiz eta asteazken goizean zerbait apurtuta agertu... Dexente saltzen dugu, badakizu jendeak etxera periodikoa eta ogia eramateko ohitura daukala. Baina bat baino gehiago ez da kapaz ezta letra haundiak irakurtzeko ere... Eta periodikoez gain bolleria asko saltzen dugu". Arantxak ez dauka jaiak aprobetxatzeko aukerarik: "hemendik lotara eta ohetik hona. Lan egin behar...".



Ibargarai 20, behea

BERGARA

☎ 76 59 29

XAMARTIN KIROLAK

ADIDAS • LIBERO • REEBOK • TRANGO • MITO



OIHANA GARDOKI TABERNARIA

Oihana Gardokik (24 urte) Aldoka Maldoka tabernan egingo du lan. Tabernariak hamaika izerdi bota behar izaten dute herritarren zein kanpotarren egarria asetzeko. "Astebukaera normal batean ibiltzen den jendea hirukoiztu egiten da jaietako edozein egunetan, eta zer esanik ez astebukaeran". Arratsaldez eta gauetz egingo du lan eta berak aitortu digunez kalimotxoa eta zerbeza dira gehien eskatzen diren edariak. Oihanari ez dio inbidiarik ematen barraz bestaldeko jendeak: "Jaietako bost egunetan juerga egitea gehiegizkoa da. Nahiago dut egunen batean juerga bota eta gero atsedena hartzea. Jaiak dosifikatu egiten ditut".

ALAZNE MENDIZABAL OKINA

Alazne Mendizabalek (27 urte) Bolintxo okindegian lan egiten du joan zen ekainetik. "Nahiago nuke jai edukitzea Pazkuak hobeto aprobetxatzeko, baina lan egin beharko dut... Bi lagun gaude lanean eta denetik egiten dugu: ogiak eta boiloak labean sartu eta jendeak atendidu. Lehen aldia da jaietan hemen lan egingo dudala eta uste dut gaupaseroak etorriko direla. Erregetan eta Labegarietako jaietan etorri ziren... ez zait inporta". Larunbat eta astelehenean egin beharko du lan, 7:30etatik ordu bietara. "Gero siesta egin eta kalera aterako naiz. Gauetz aprobetxatzen ditut jaiak".



FELIX BARROCAL KALE GARBITZAILEA

Azken hiru urteetan bezala, **Felix Barrocalek** (28 urte) Pazkuetan gogor egin beharko du lan. Garbilekoak goizeko 6etan hasten dira lanean eta Felixek esaten digun bezala, "harrigarria da kaleetan horrenbesteko zikinkeria egotea, herri barruan orokorrean eta batez ere txoznen inguruan eta Kruz Gallastegin. Lan dexente izaten dugu". Lan egin arren Felix ez da etxean geratzen diren horietakoa; "egunero irtetzen naiz eta noizbait gaupasa eginda joan naiz lanera...". Ohituta dago jaietan lan egiten eta horregatik ez zaio hainbeste kostatzen. Bere hitzetan, "filosofiarekin, lasaitasunez hartzen ditu jaiak".

lan eta lan



BERRIGARA
Pazkuetako
ale berezia

1996-5-24
33



**Matxiategi
Elektragintza
C.B.**

**ELEKTRIZITATE
MATERIALEN SALMENTA
ETA INSTALAZIOA**

Ondo pasau jaixak!!

Feming Doktoea, 5 ☎ 76 19 94

EGITARAUA

08:30:

Kalejira Los Incansables txarangak alaituta.

09:00:

Entzierroa Barrenkaletik zezen plazaraino. Ondoren enbolatuak.

10:00:

Ollagorra elkarteak antolatutako plater tiraketa, San Juan auzoan.



11:30:

Herri trenaren ibilera, Fraiskozuri plazatik irtenda 13:30ak arte.

12:00:

Aranzadi Ikastolako dantza taldeen erakustaldia San Martin plazan.

13:30:

Jardunek antolatutako herri poteoa.

14:30:

Heri bazkaixa Bideberrin trikitilariek alaituta.

16:30:

Karaoke ekitaldia San Martin plazan.



17:00:

Profesionalen pilota partiduak Udal Pilotalekuan.

- Lejardi eta Taberna Nagore eta Mendia.
- Unanue eta Zezeaga Titin III eta Elgoro.

17:00:

Herri trenaren ibilera gaueko 9ak arte.

18:30:

Kuadrilenzako jokuak zezen plazan Los Incansables txarangak alaituta. Ondoren, Los Incansables txarangarekin kalejira.



19:30:

Dantzaldia Trabuko taldearekin San Martin plazan.

Atsedenditxo baten ondoren, jarraipena berriz ere 23:00etan.

24:00:

Bitorianatxoren igoera San Martin plazan. Egun guztian zehar kaleak alaituko dituzte Xafre eta Zaharra, eta Iزارo eta Jon trikitilari bikoteek, eta Los Incansables txarangak.

IRITZIA



AGUR, BITORIANATXO!!

Bolo, bolo, karrera bolo!! Aurten be bukatu die jaixak... Ta momentuan geixen estimatzen dugun aspaldiko laguna, oia da. Gainera, hamendik aurrera udia datorren bittartian, astero dauzkou jaixak han ero hemen... Baina lenao, egun beltz luze, aspergarri da nerbixoz josittakuak pasau bia die... oso tipikua dan arren: esamiñak!!

Jaixetako martitzenian, sekulako herri bazkaixa. Oin dala urte batzuk, herri olinpiadetakuei usarixo hau berreskuratzia okurridu jakuen. Ta aurten be, oitturia jarraitukou nobedade batzuk geittuaz. Asteko, Bideberrin izango da bazkaixa, bertako arbolapian, txoznez inguratuta. Majo bazkaldu ostian, euskal karaokia. Trikitilariek be sekulako anbiientia jarriko dabe. Txozna ta taberna zulotan be, aber musika euskalduna, bestetan baino geixao jartzen daben ("Emoustasu mosutsu bet... maitie...") modako abestixa geixegittan be jartzeke), ze bestela, gatzittu eiñ biar ga hainbeste bakillaun artian. Ez ahaztu jaixetako lepoko pañelua erotsia, "Xamatx" dantza taldian alde da ta (aurten Iñaki Arenazak eiñdako dibujua dauka, bittartian jaixetan be preso darenekin akordau gaittezen). Badatoz! Badatoz jaixak! Bitorianatxo beruntz datorren eiñian. Pum! Pum! Ah... ta ein biozunian... erabilizu!! (Ia ba Jardun!!).

LARRAITZ MADINABIETIA



ARISTEGI-TOLA

ITURGINTZA

Bolu, 26 BERGARA ☎ 76 54 17

**Gas naturalezko, propanozko eta gasoleozko berogailu instalazioak.
Bainurako altzarien salmenta eta instalazioa, iturriak eta dekorazio-gaiak.
Era guztietako konponketa lanak.**

■ ATREBENTZIA EZPADA

Jaien ostean asteazkena gogorra izaten da. Lana daukazu asteazken goizean?



**JOSE MARI
MENDIZABAL**

Ba, ez dakit. Tavexen nago lanean eta beharbada greba izango dugu. Lana izanez gero ez zait ardura, jai guztietan lan egin behar izango dut eta.



**ADELA
GONZALEZ**

Etxekoandrea naiz eta lana egin beharko dut. Hori bai, haurrak etxean izango ditugu, andereñoek ez dute lanik egiten eta. Jaietan ondo pasatzen dut.



**AITOR
BENGOA**

Lana daukat eta beraz asteartean gaueko 12ak aldera joango naiz etxera. Asteartean kuadrilan ez dugu ezer berezirik egiten baina nahiago nuke jai izatea.



**ARANTXA
URIBE**

Jai daukat asteazken goizean. Orain dela 4 urtetik jai izaten dugu. Irakaslea naiz eta asteazkenean klasea ematea alperrikakoa izaten da.

■ MINGAINARI TIRAKA

Libe Txintxurreta, 27 urteko filosofia ikasle bergararrak ingeles klaseak ematen dizkie hurrei Arrasaten. Aurten Jardunek antolatutako pegatina lehiaketaren irabazlea izan da "Ein biozunian, erabilizu!" esaldiarekin.

MARIA URZELAI

Zuk askotan erabiltzen duzu?
Gutxitan, kalean eta klasean batez ere.

Noiz bururatutako esaldia?
Juergan geundela. Inspirazioa edozein momentutan etortzen da.

Zergatik uste duzu izan dela



**LIBE TXINTXURRETA
PEGATINA LEHIAKETAKO
IRABAZLEA**

irabazle zure lema?
Zentzu bikoitzagatik..Sexuak engantxatu egiten du.
Zuri esan dizuten gauzarik

politena, ze hizkuntzatan?
Mmmm, lagaidazu pentsatzen... gazteleraz!
Irakurtzeko ohiturarik baduzu?
Gehiago irakurri beharko nuke.
Eta euskaraz berba egiteko?
Bai, baina ondo alfabetatu gabea naiz. Nor-nori-nork-ek makina bat buruhauste ematen dizkit.
Espresatzeko, hizkuntza baino hoherik bai?
Bai, gorputza.
Aurtengo Pazkuetako plana?
Ikasi eta lan egin, tabernan ondo pasatzen dut.
Jaietan zuk asmatutako esaldia pegatinetan ikustean zer?
Komisioa kobratuko diet!

SAN MIGUEL S.A.

DEKORAZIO ETA ISOLAMENDUAK

Biltegia eta bulegoak:

San Lorentzo, 4 BERGARA

Telefona: 76 47 90 • Faxa: 76 01 15


MATERIAL SALMENTA:
Banatzaile ofiziala



LANA DE VIDRIO




LANA DE ROCA



TECHOS



TECHOS



IMPERMEABILIZANTES



asteartea

BERRIGARA
Pazkuetako
ale berezia

1996-5-24

35



Barrenkale, 35
☎ 76 03 98
BERGARA

Otalora z/g
☎ 79 11 72
ARRASATE




Diesel



MARKIEGI Autoak

Leizeaga, 1 (San Lorentzo Industria Poligonoa). Telefonoa: 76 35 09 BERGARA

- Autoaren konponketa orokorra.
- Txapa, pintura, mekanika.
- Bankada unibertsala.
- Pintaketarako labe-kabina.
- IAT-rako prestaketa linea.
- Direkzio alineazioa.
- Neumatiko zerbitzua.



■ ARANZADI IKASTOLAKO DANTZARIAK

Aranzadi ikastolako dantza taldeak bi urte barru 25 urte beteko ditu eta azken urte hauetan Pazkuetan ez du hutsik egin. Ohiturari jarraituz, aurten ere martitzen eguerdian ikusteko aukera izango dugu.

Aranzadi ikastolako dantza taldean OHoko lehenengo mailatik 8. mailara arteko 70 neska-mutil dabilta. Astero, igandean ez baldin badago konpromezu garrantzitsurik, egun batez aritzen dira entsaiatzen.

Adinaren arabera talde ezberdinetan sailkatzen dituzte haurrak eta gaur egun nesken 3 talde eta mutilen 2 talde dituzte. Irakasle lanak Xamatx dantza taldeko kideek egiten dituzte eta Alaitz Arana, Xamatzeko kideak, adierazi digunez, "gehienbat aurrekuarekin hasten gara. Halere ume-umeei dantza bereziak erakusten dizkiegu eta nagusiagoekin Gipuzkoa eta Bizkaiko dantzekin aritzen gara".

NESKA GEHIAGO

Mutilak baino neska gehiago daude eta negu partean entsaiatzen ibili ondoren, udaberrian, Bergarako jaiekin batera herriz herri ibiltzen dira neguan ikasitako dantzak erakusteko. "Kanpora irtezea aliziente bat da haurrentzat, bestela aspertu egiten dira eta.



Xamatzek ezin duenean Bergarako auzo batzuetako jaietara ere joaten gara" dio Aranak.

XAMATZEN HARROBIA

Aranzadi ikastolako dantza taldea Xamatzen harrobia da eta 16 urte betetzen dutenean dantzariak nagusien taldean sartzen dira. "Pasatu pasatzen dira, baina gutxi. OHoko 8. mailara heltzen direnean askok laga egiten dute. Gaur egun BBBko 1. mailan dabilzan neska talde bat dago eta garbi dute Xamatzen sartuko direla. Baina arazoa mutilekin daukagu, OHoko 7. edo 8. mailan dantza laga egiten baitute" esan digu Alaitz Aranak.

Dantzan egiteko beharrezkoa da dantzarietz gain, musikariak izatea eta azken aldirian txistulari eta danbolillero falta dagoela aipatu digu Aranak. "Jendeak ikasten du txistua jotzen eta denetik piska bat. Xamatzen 3 txistulari ditugu, lñaki falta da, eta danbolilleroekin beti gaizki ibili gara. Orain bat hartu dugu, baina beti arazoekin. Jendeak ikasten du, baina ez dago josteko prest".

Joan zen igandean Bergaran izan zen Haurren Egunari dagokionez, balorazio ezkorra egin digu Aranak. "Dantzari gutxi etorri zen, bi taldek kale egin baitzuten. Ikusteren ere jende gutxi etorri zen eta haurrak etxeetan bazkaltzeko ere arazoak izan genituen. Kezkatuta gaude 98an 25 urte beteko ditugu eta zerbait berezia egin nahi dugu; baina aurten 200 haur inguru etorri dira eta egon dira urteak 600 ume etorri direnak, eta guretzat oso larria da hori".

Dantzen erakustaldia egingo dute martitzenean plazan



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

MATXIATEGI, 5 ☎ 76 57 41 - 76 57 42
FRAISKUZURI, 4 ☎ 76 13 41 - 76 18 42

Jai zoriontsuak izan ditzazuela!!



asteartea

BERRIGARA
Pazkuetako
ale berezia

1996-5-24

37

■ HERRI BAZKAIXA • BIDEBERRIN

Ordu bata t'erdiak, martitzena, jaietako azken eguna. Bazkal aurretik zer egin? Txikiteoa! Poteoa! Nahiz eta gauza ez izan, azken eguna da eta aprobeztatu beharra dago. Jaietan egiten dugun azken bazkalaurreko poteoa da.

Tabernarik taberna ibili ostean tripa bete eta ondo geratzea ez da batere gaizki etorriko, ostiraletik formal jateke asko egongo dira eta.

PAELLA ETA OILASKOA

Ein biozunian erabilizu pegatina paparrean edo ...ean jarri, eta paella jaten hasiko dira. Egarriak ez itotzeko edaririk ere ez da falta. Arroz pilaren ostean oilaskoa iritsiko da. Oilaskoa patata eta guzti, jakinal! Bukatzeko, nahiz eta egun horretakoa akabera bareko bazkaria izan, brazo gitano; dena borobiltzeko kafea eta kopak. Mila pezetaren truke bazkari hori izango dute Bideberrin egingo den herri bazkaixan elkartzen direnek.

BIDEBERRIN, EZ SAN MARTINEN

Jarduneko gazte taldeak iaz antolatu zuen lehen aldiz herri bazkaixa. Orduan Plazan egin zen; aurten, Bideberrin antolatu da. "Egitarian San Martin plazan dela jarri arren, Bideberrin egingo



HASIERAN PLAZAN EGITEKOA BAZEN ERE, BIDEBERRIN EGINGO DA.

da: txozna asko ez dago eta gazterik gehienak hor egoten direnez lekurik aproposena iruditu zaigu. Gainera plazan hotzagoa izango litzateke, Bideberri batuagoa da, hobeto aterako delakoan gaude" adierazi digu Nekane Gabilondo Jarduneko dinamizatazaileak.

eta oso giro ona egon izan da beti. Azken urteetan, ordea, Jarduneko iritiz, giro hori galduta dago. "Azken urteetan ez da aparteko giro hori berreskuratu nahian hasi ginen herri bazkaixa antolatzen. Iaz lehen aldiz egin zen, 160 lagunek parte hartu zuten eta oso ondo irten zen".

EIN BIOZUNIAN...

ERABILIZU!

Ia ba JARDUN!!

GIROA BERRESKURATU NAHIA


Aspalditik da Pazkua martitzenean koadrilen eguna. Jende asko

KARAOKEAN KANTUAN

Bazkalostean galdu samar dagoen beste euskal ohitura zahar bati helduko zaio: kantua izango da nagusi. Horretarako, denbora alferrik pasatzen ez denez, karaokea izango da aitzakia: kantu baten hitzak ikusi eta, ausartzen denak, mikrofono aurrean kantatu. Itoiz, Zarama, Anje Duhalde, Herizainak... "betiko" euskal kanturak, bertsio berriak entzuteko aukera izango da. Ez dadila izan euria egiteko eskaera!

Iaz primeran pasatu zuten 160 bat lagunek San Martin plazan

Kutxa



gipuzkoa donostia kutxa

Ziripot



*Jabe berriak,
martxa berria!!*

Ondo pasau jaixetan!!

Bidekurutzeta, 11 ☎ 76 11 41

ZUBIKUAK markarik oneneko jantziak eskaintzen dizkizu emakume,


gizonezko eta umeentzako urte guztian zehar. Orain bainujantziak aurkezten dizkizuegu.

Diseinu berriak, kolore biziak, erosoak ondo sentiaraziko zaituzten bainujantziak.

Barrenkale, 24

Zubikua

☎ 76 10 16



erlojudenda

i RUDI

bitxidenda

Konponketarako tailerra daukagu

Ibargarai, 2

☎ 76 51 65

INGELES FRANTSESA

UDAKO IKASTARO TRINKOAK

- **NOIZ:** Ekainaren 24tik uztailaren 12ra
- GOIZ ETA ARRATSALDEZ
- ADIN GUZTIAK
 - Haurrak
 - Gazteak
 - Helduak
- 3 EDO 4 ORDU



INFORMAZIOA:

Bergarako UNED. (3. pisua) ☎ 76 06 87

**MATRIKULA
ZABALIK!!**



"Los Panchos" taldea, 1972ko Pazkuak

Argazkian agertzen den neska koadrilak lehen saria irabazi zuen 1972ko Pazkuetako koadrilen arteko lehiaketan. Argazkian ikusten denez, primeran girotuta etorri ziren eta, kitarren laguntzaz, Mexiko aldeko kantuekin alaitu zituzten herriko kaleak.

Badirudi Pazku astelehenean, kuadrilen arteko jantzi lehiaketa egiteko ohitura zegoela. Esan bezala, argazkia 1972ko maiatzaren 22koa da, eta sari modura 8.000 pezeta eta trofeoa eman zioten koadrila honi. Diru horrekin Ospitalerako (oraingo Erresidentzia) mobiliarioa erosi zuten. Mexikar eskuzabalak, dudarik ez... Hara hor zeintzuk diren, ezkerretik eskumara:

Zutik: Pili Inza, Julia Luna, Mari Karmen Barrenetxea, Mariasun Bilbao, Pili Ogeta, Isabel Juldain, Ana Mari Zeziaga, Izaskun Zubizarreta, Pili Fernandez de Retana, Txaro Beiztegi, Loli Aranda, Laura Aiastui, Loli Larrañaga eta Kontxi Laskurain.

Makurtuta: Amalia Albeniz, Maria Eugenia Iñurrieta eta Tere Moreno.

Jarrita: Izaskun Arakistain, Elena Zabala, Anabel Zengotitabengoa, Arantza Lizarralde, Ane Miren Seminario, Ines Horrillo, Antonia Sanchez, Dulce Maria Rodriguez eta Pakita Lopez.

Argazkia: Kontxi Laskurain



Gaskide, S.L.

JON XXIII PLAZA Z/G

☎ 76 49 00

BERGARA

ITURGINTZA: Eguzki indarrezko ur beroa.

BEROGAILUA: Zoru irradiatzaileko berogailua.

GASA: Era guztietako gas instalazioak, banakakoak eta taldekoak.

URA: Uren tratamendua eta putzu beltzak.



erretreatu zaharra

BERRIGARA
Pazkuetako
ale berezia

1996-5-24



Bergarako zingaroak, 1982

Gautxori koadrilakoek mozorrotzeko ohitura zeukaten Pazkuetako astelehenean. Goiko argazkia 1982 urte ingurukoa da eta urte hartan zingaroz jantzita agertu zitzaizkigun gautxori hauek. Zingaroek euren doinu alaiak jo zituzten kalez kale eta, Alfredo Gonzalez Chirlaque gaur egun Bandako zuzendaria bertan egonda, pentsa dezakegu ez zutela desafinatuko.

Akordeoa, saxofoia, biolina eta beste hainbat instrumenturekin euren trebetasuna azaldu zuten. Esan bezala, goizean disfrazatuta kaleratu ondoren Lasa jatetxean bazkaltzen zuten eta baten batzuk goizaldera arte irauten zuten juergan... Argazkikoak honako hauek dituzue, ezkerretik eskumara:


Zutik: Aritz Ormazabal (mutikoa), Alfredo Gonzalez, Julen Narbaiza, Rosana Gutierrez, Rafael Amasorrain, Aintzane Bideluze, Angel Agiriano, Ana Ilarduia eta Alazne Etxabe.

Makurtuta: Aitor Azkarate, Unai Azkarate (mutikoa), Mikel Araiztegi, Alberto Laskurain, Miguel Inclan eta Martin Begiristain.

Aurrean: Arantxa Mujika eta Juan Antonio Larrañaga.

Argazkia: Joseba Ormazabal

BERRIGARA
Pazkuetako
ale berezia
1996-5-24



JAI ZORIONTSUAK
IZAN DITZAZUELA!!



Luzen
Opari Denda
Bergara

Barrenkale, 27

ARRREGI ARROZTEGIA



Arozlan mekanikoak

Ateak

Horma armairuak

Tarimak-Parketak

Neoprenozko
juntadun egurrezko
leihoak


KAPRESA PVCzko
leihoak



TAILERRA: Urteaga, 20 ☎ 76 11 73 • ERAKUSKETA: Bidekurutzeta, 38 ☎ 76 31 03



SUKALDEKO ARMAIRUAK



PERTSIANAK

EDERGAI

- PINTURA MATERIALA • ESKULANAK •
- MARKO JARTZEA:
- Ispiluak - Laminak - Koadroak -
- Oleoak - Tituluak -



Bidekurutzeta, 38 ☎ 76 31 03

ALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu 24 behea BERGARA (Gipuzkoa). Telefonoa eta faxa: (943) 76 30 57



FILA modeloa



NALIA modeloa



ONDA modeloa



OXFORD modeloa



ACQUA modeloa



SAVOY modeloa



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR



Sukaldeko altzariak

Sukalde zoragarriak!